

Zure moduan, bertakoak garelako

Grupo Eibar Gizartean



WWW.GRUPOEIBAR.COM



BIZKAIA
Alameda Mazaredo, 15 - Bajo
48009 Bilbao

GIPUZKOA
Plaza José M^o. Sert, 10 - Bajo
20018 Donostia

1. Grupo Eibar: nortasuna



Aurkibidea



- 1 · Grupo Eibar: nortasuna
- 2 · Pertsonetikiko erantzukizuna
- 3 · Soziala eta solidarioa
- 4 · Gure taldea
- 5 · Gure bazkideak
- 6 · Bertakoa izatearen balioa
- 7 · Jasagarritasuna eta gure ingurunearen zaintza



Grupo Eibar taldean 1974. urtean hasi ginen gure bezeroen ametsak betetzen, eta ordutik Gipuzkoan eta Bizkaian 6.000 etxe baino gehiago garatu ditugu. Proiektu sendoak, kalitatezko materialekin eta etxe baten errealitatera egokitutako banaketa aztertuekin. Beti gure hitza betetzen. Gure bezeroen beharretara egokitzen gara, malguak gara bere beharretara gehien egokitzen den produktua eskaini ahal izateko, era guztietako aldatetako eta alternatibak eskaintzen dizkiegu gure bezeroei, haien inbertsioak merezi duela uste baitugu.

Gure obsesioa gure bezeroak zaintzea da; horregatik izaera berezia duten eta bakarrak diren eraikinak egiten ditugu, betiere Grupo Eibar-en nortasun-zigilua, Kalitatea, mantenduz. Badakigu etxebizitza batek ahalegin handia eskatzen duela. Horregatik, ahalegin horren pareko den zerbitzu bat eskaintzen ahalegintzen gara.

Hazten goaz

Grupo Eibar taldean harro gaude Euskadiko udalerrri gehienetan eraiki dugulako.

2022ean, Grupo Eibar ametsak sortzen aritu da Euskadiko 15 udalerritan:

Donostian, Azpeitian, Barakaldon, Basaurin, Bergaran, Bermeon, Deban, Eibaren, Lazkaon, Elgoibaren, Irunen, Markinan, Oiartzunen, Santurtzin eta Zarautzen

Guztira **18 promozio** sustatu ditugu..

245 familiak etxe bat izateko beren ametsa bete dezaten lan egin dugu.

Euskadiko 10 udalerrri eta hiritan ditugu bulegoak: Bilbon, Donostian, Irunen, Eibaren, Zarautzen, Bermeon, Bergaran, Azkoitian, Lazkaon, Markinan.



Etengabe hazten ari den enpresa gara.

Gora egin dugu promozio kopuruan, baita lanean gauden herrien kopuruan, eraikitzen ditugun etxeen kopuruan eta baita Grupo Eibar-en lanean ari garen pertsonen kopuruan ere, taldean lan egiten dugun pertsonen kopuruan, eta hori guztia gure bezeroen konfiantzari esker, **ESKERRIK ASKO.**

- Azken 15 urteetan batez beste urtean 136 etxebizitza eraikitzeak, azken 4 urteetan **200 etxebizitza** eraikitzea igaro gara.
- Azken 15 urteetan urtean 40 milioi euro inguru saltzetik azken 4 urteetan **70 milioi euro** baino gehiago saltzera pasatu gara.
- 2021ean **245 etxebizitza eraiki eta 76 milioi euroko** salmentak izan ditugu.

1 Grupo Eibar taldean gorputzez eta arimaz diharduten aholkulariak ditugu uneoro, gure bezeroek onena aukeratu dezaten. Gure aholkularia zure etxeko solaskide espezializatua izango da, eta elkarlanean egingo dugun proiektuan lagunduko dizu maila guztietan, erreserba egiten denetik etxea jasotzen den arte.

2 Gure zerbitzu pertsonalizatuak bereizten gaitu, etxebizitza gure bezeroen gustu eta beharretara egokitu dadin, eta, horretarako, gure salmenta bulegoetatik laguntza integrala emateko eta gure profesional taldearekin etxea pertsonalizatzeko zerbitzu eskusiboa eskaintzen dugu.

3 Grupo Eibar Taldean Arima eta sentimentua duten proiektuak bilatzen ditugu, ezberdinak diren proiektuak. Kokapen ezinhobeko promozioak, eraikin bereziak, nortasuna duten etxeak, arimadun proiektuak. Pertsona berezientzako etxebizitza bakarrak, bere nortasuna eta arima bere etxeko txoko bakoitzean jarriko duena eta xehetasunak guk egiten dugun bezala baloratu eta zainduko dituen.

Bilakaera

URTEA	2018	2019	2020	2021	2022
ETXEBIZITZAK	208	181	137	184	224
SALMENTAK	71.187.949	76.858.301	40.834.131	65.426.733	76.605.787

2. Pertsonetikiko erantzukizuna

Bezeroak

Ametsak betetzen laguntzen.

1 Grupo Eibar-en pertsonetikiko erantzukizuna dugu. Urte hauetan zehar beraien ametsa den etxea eraikitzen utzi diguten 6.000 familiekiko erantzukizuna.

hornitzaileak

Gure konpromezuak betetzen

2 Gure hornitzaile-sarean osatzen duten pertsonetikiko erantzukizuna, denak bertakoak, eta haien laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke gure etxebizitzaren kalitatea bermatzea.

Taldea

Lana sortzen

3 Grupo Eibar osatzen duten pertsonetikiko erantzukizuna etengabe hazten ari den eta gaur egun **40 pertsona** baino gehiago dituen taldea.



Grupo Eibar Taldea

Konpromezu eta profesionaltasuna

Grupo Eibar-en ditugun gauzarik onenak gure pertsonak dira, haiek egiten baitute **2022ean 18 promozio** kudeatu ahal izatea, eta urtean **250 pertsona** baino gehiagori lana ematea gure promozio ezberdinetan.



Garapena helburu

Grupo Eibar-en, zazpi garapen helburu (GJH/ ODS) aukeratu ditugu, gure ustetan gure enpresaren bitartez eragin dezakegunak. Ezinbestekoa da guztiok zalantzarik gabeko konpromisoa hartzea gizarte jasangarriago eta bidezkoago bat eraiki ahal izateko.

4 Guregandik gertu dauden pertsonetikiko dugun erantzukizunak, hau da gure bezero, hornitzaile eta lankideekin dugunak, baita ere munduko beste leku batzuetan dauden pertsonen erantzukizunean pentsarazten digu, eta beraz, pertsona horiek zaintzen lagundu behar dugu denona den planeta zainduz.



Grupo Eibar-en bat gatoz Nazio Batuek 2015ean definitutako helburuekin, hala nola Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH)

hamazazpi guztira, gizabanako, erakunde edo enpresa bakoitzak esku hartu edo hobetu ditzakeen inpaktu sozialeko esparruak markatzen dituztenak, bidezkoagoa den mundu bat lortu ahal izateko.

- | | |
|---|--|
| 1.  Osasuna eta ongizatea. | 2.  Genero berdintasuna. |
| 3.  Energia eskuragarria eta ez kutsatzailea | 4.  Lan txukuna eta hazkunde ekonomikoa |
| 5.  Industria, berrikuntza eta azpiegitura. | 6.  Hiri eta komunitate jasangarriak. |
|  | 7.  Klimaren aldeko ekintza. |



3. Soziala eta solidarioa

Grupo Eibar-en irizpide ekonomikoak ez ezik, gizarte eta ingurumen alorra ere sartzan ditugu gure empresa estrategian, interés taldeekin ditugun konpromisoak alde batera utzi gabe.

Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren proposioen eta eraikuntzaren sektoreko erreferente gisa, argi ditugu gure lanarekin eta ahaleginarekin egunez egun jorratu nahi ditugun erronkak. Taldea osatzen duten profesionalen helburua da herrietan ingurumen-inpaktu negatiboa murriztea, gure sustapenen energia eraginkortasuna hobetuz, zerbitzu komun eskuragarriak eraikiz, eta iraunkortasun handiko materialekin sustapen iraunkorragoak sustatzea, ingurumenarekiko errespetua eta energia gutxiago kontsumituko dela ziurtatzeko

konpromezuak...

Horiek dira, besteak beste, abian jarri ditugun ekimen azpimarragarrienetako batzuk, etxebizitzaren eraikuntzan ez ezik, gizarte bidezkoago baten eraikuntzan ere.


Grupo Eibar-ek 2022-2036 ETXEBIZITZAREN ALDEKO ITUN SOZIALA SINATU DU.



Bilbon 88 erakundek 2022-2036 aldirako Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala sinatu dute. Dokumentua Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak sustatu du, eta zenbait helburu finkatzen ditu, besteak beste, alokairuko eskaintza publiko ordaingarria handitzea, babestutako etxebizitzaren kopurua areagotzea eta higiezin-parkearen herena birgaitzea 2036ra bitartean.

Kirolari gazteekin konpromezua

Motociclismo: Xabi Zurutuza (Legazpi, 2006)



Xabi Zurutuza (Legazpi, 2006) egungo motoziklismoaren etorkizun handienetakoa da, eta Grupo Eibar-en harro gaude berarekin lankidetzan aritzeaz eta bere kirol garapenean laguntzeaz momento honetan.

Aurtengo denboralditik aurrera, Team MTA italiarraren koloreak jantziko ditu, eta Moto3-n lehiatuko da, FIM Junior GPren kategoria nagusian.

Naiz eta Motoziklismoan arraskata asko lortu, bere ikasketekin jarraitzen du, DBHko 4. Mailako ikasle gisa darrai eta motoekiko duen grina bateratzen ditu.

Gure pasioa kirola da

Grupo Eibar-en, erabat identifikatzen gara kirolak gizarte osasuntsu, emankor eta kohesionatua eraikitzeko transmititzen dituen balioekin.

Grupo Eibar-en defendatzen ditugun balioek lotura estua dute kirolak ordezkatzen dituenekin, hau da, **esfortzuarekin, hobetzearekin eta talde lanarekin.**

Horregatik, urteak daramatzagu kirola bultzatzen, eta gure inguruko profesional eta taldeei bereziki. Adibidez, urte hauetan **Elgoibar eskubaloiko taldeari, Hondarribiko San Silbestrea, Donostiako Antigua auzoko pilota txapelketari, Barakaldoko Futbol Klubari eta Orioko traineruari lagundu diegu, besteak beste.**



...Emakumeen kirolarekiko konpromezua

Tenis: Ane Mintegi

Grupo Eibar-en, Ane Mintegi tenislari profesional gaztearen etorkizun handiko ibilbidea babesten dugu. Gure akordioak, Grupo Eibar-ek emakumeen kirola babesteko duen asmoa agerian uzten du.

Kirola, oro har, ezinbestekoa da bizimodu osasungarria izateko, eta tenisa eta Ane Mintegi, bereziki, oinarritzko balioen adierazle dira, hala nola sakrifizioa, errespetua eta konpromisoa.



...Kirol inklusiboarekin konpromezua

Atletismo Egokituko Kirol Kluba: Javi Conde

Grupo Eibar-ek Basauriko Javi Conde (Paralimpiar kirolari ohia, jokoetan 9 domina dituena, 7 urre eta 2 zilar), Atletismo egokituko klubak antolatutako lasterketa solidarioan parte hartu du. 24 orduko lasterketa solidarioa, non 55 kirolariak, txandaka, 290,36 kilometro egin zituzten.

Lasterketak bi helburu argi zituen: Joko Paralimpiar inklusiboak aldarrikatzea eta dirua biltzea, sumendiaren ondorioak zuzenean jasan dituen La Palmako Club de Atletismo Brisas del Paso klubari laguntzeko.



4. Gure taldea



Gure taldea da Grupo Eibar-ek duen altxorrik preziatuena eta gaur eguneraino ekarri gaituena, enpresaren ia 50 urteko ibilbide honetan.

Grupo Eibar **40 lagunek** osatzen dugu gaur egun. Gure taldeko **% 80ak 55 urte baino gutxiago ditu.**

Gero eta emakume gehiagok osatzen dugu Grupo Eibar. Gure taldea osatzen dugun pertsonen % 40a emakumeak gara iada, eta gure helburua gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekotasuna lortzea da.

Gure langileen % 40 etengabe ari dira obretan lanean. Beste % 25a gure 14 salmenta bulegoetan daude Euskadiko udalerrietan banatuta. Eta gainerako % 35a Bilboko eta Donostiako gure bulego nagusietan daude.

5. Gure bazkideak



2024ean
50 urte
beteko
ditugu.



Grupo Eibar-en ia berrogei eta hamar urteko historian zehar, Euskadiko 100 bazkide baino gehiagoren aurrekia erakarri dugu; gehienak enpresariak dira, eta beraien aurrezkiekin gure inguruan aberastasun eta ongizate handiagoa sortzen lagundu nahi izan dute.

Bazkideen oinarri zabal horri esker, etekinak euskal geografia osoan banatu ahal izan ditugu, eta, krisi-uneak izan direnean, bazkide guztien ahaleginaren ondorioz, Grupo Eibar-en historian ez dugu promoziorik erortzen utzi.

Auzolan filosofia

Gure Auzolan filosofia eta gure bazkide guztien hitzari eta izen onari ematen diogun balioa direla eta, ez dugu inolako auzi judizialik irekita inolako bezerorekin, ezta ere kobratu gabe geratu den hornitzaile edota bankurik.

Gure Taldearen indarra gure bazkideen kapitalizazioarekin ikusten da, Grupo Eibar osatzen duten sozietateek 80 M €-ko funts propioak dituzte.

Funts propioak

Grupo Eibar osatzen duten sozietateek 80 M€-ko funts propioak dituzte.

6. Bertakoa izatearen balioa



Sortu ginetetik beti egon gara hemen lanean. Gure promozioen % 99 Euskadin egin ditugu.

Grupo Eibar-en promozio bakoitzean 10 hornitzailek hartzen dute parte batez beste, eta horietatik % 90 bertako hornitzaileak dira, hau da, Euskadikoak eta Nafarroakoak.

Guztira, 2022ean 70 hornitzaileekin lan egin dugu. Lehen adierazi dugun bezala, horien % 90 bertakoak izan dira, eta 40 milioi euroko erosketak egin dizkiegu.

Grupo Eibar osatzen dugun langile, hornitzaile eta bezeroek lurralde bera partekatzen dugu eta bertakoa izateari balio handia ematen diogu. Gure gizartean elkarbanatuko den aberastasuna sortzea dugu

helburu. 2022ean, guztira 85M € inbertitu ditugu gure promozioetan: 30 milioi lurzoruan, 40 milioi hornitzaileetan eta 15 milioi zergetan.

Harro gaude 2022ean 15 milioi euro ordaindu ditugulako zergetan gure instituzioetan.

Horrek guztiak eragina du elkarrekin bizi garen pertsonen ongizateari eusteko. Pertsona horiekin kezka partekatzen ditugu, gure lurra partekatzen dugu eta balioak partekatzen ditugu. Horregatik Grupo Eibar taldearentzat oso garrantzitsua da gure ingurunea zaintzea, tokiko enpresekin lan eginez guztion artean gure ongizate sistemari eusteko.



Euskadi eraikitzen

1 Gure promozioen %99a Euskadin eraiki ditugu.

Gertutasunean sinesten dugu.

2 Gure hornitzaileen %90a bertakoak dira, Euskadi eta Nafarroakoak.

Hazkunderari egindako ekarpena

3 2022ean, guztira 85 milioi euroko inbertsioa egin dugu, lurzoruen erosketan 30 milioi, hornitzaileetan 40 milioi eta zergetan 15 milioi.

Ongizatea sortzen

4 Grupo Eibar-en gure ingurunea zaintzeko arduratzen gaitu, horregatik guztion artean gure ardurak eta kezka partekatzen dituzten bertako hornitzaileekin lan egiten dugu, gure ongizate sistema mantendu ahal izateko.

7. Jasangarritasuna eta gure ingurunearen zaintza



Kanpoko zuzeria:

PVC edo aluminiozko leihoak, beira bikoitzarekin eta zubi termikoaren hausturarekin, eta emisio txikiko beira kameradunak, galera energetikoak nabarmen murrizten dituztenak eta isolamendu akustikoa hobetzen laguntzen dutenak.



Kalitate hobegoko Fatxada Aireztatua:

Fatxadaren kanpoko itxiturako gure eraikuntza-sistema euskarri-orri batek osatzen du, eta kanpotik isolamendu-geruza batek eta azken estaldura-/akabera-materialak osatzen dute. Azken hori euskarri-orriari eusten dion egitura baten bidez lotzen da. Isolamendu-geruzaren eta estaldura-materialaren artean aire-ganbera bat sortzen da, ez estankoa, airearen zirkulazio konstantea ahalbidetzen duena eta aireztatpena errazten duena. Tarteko espazio horretan dagoen temperatura-aldearen ondorioz, "Tximinia-efektua" izenez ezagutzen den ohiko fenomeno gertatzen da. Bero-hilabeteetan gehiegi berotzea saihesten du fenomeno horrek, eta, ondorioz, etxebizitzaren barruko temperatura hobeto kontserbatzen da hilabete hotzenera. Grupo Eibar-en, gainera, aparteko isolamendu-geruza bat gehituko dugu euskarri-orriaren barrualdetik.



Isolamenduak estalki eta forjatuetan:

Behe solairuko eta estalkipeko etxebizitza guztiek isolamendu handiagoa izango dute erosotasun akustiko eta termiko hobea izateko, horrenbestez murriztuko da beroaren galera, eta etxe barruko temperatura egonkor edukitzea ahalbidetuko da. Hala bada, energia gehiago aurreztuko da bai neguan, bai udan.

Gure gizarte zentzu horretan "hazten" hasia den honetan, funtsezkoa iruditzen zaigu geure hondar alea jartzea energetikoki gero eta efizienteagoak diren etxebizitzak eraikita. Horretarako, egunetik egunera arlo honetako azken aurrerapenak aplikatuz

hobetzen laguntzen diguten espezialistak ditugu euskarri, eta horiei esker, etxe efizienteak, garbiak eta energia berriztagarrien kontsumo portzentai handiak eskaintzen dituztenak sortu eta eraiki ditzakegu, kalitatea eta jasangarritasuna bermatuta.



BIDEONERA ERAIKINA: nortasunari eusteko errespetua gure eraikinek jasangarritasunaren arloan azken aurrerapenak izatearekin bateragarria da



Beroa gure etxebizitzetan:

Grupo Eibar-en etxebizitzetan berokuntza sistemaren eta ur bero sanitarioaren errendimendu tekniko hobetzen duten efizientzia handiko galdarak instalatzen ditugu, bero ponpa baten bidez giroko airearen tenperatura ateratzen duen aeroterma sistema batez sendotuak. Ondorioz, aurrezki ekonomiko handia ahalbidetzen da etxebizitzaren energia kontsumoan, ingurumenari kalte egiten dioten hondakinak sortu gabe.

Aurrezkiak:

Azal dutako guztiaz gain, Grupo Eibar-en aintzat hartzen dugu geure etxebizitzetan energia aurrezten laguntzeko beste neurri sorta bat, esate baterako, argi naturala maximizatzeko leiho handiekin hornituriko banaketak, deskarga bikoitzeko sistemarekin hornituriko komunak, aireztargailu sistemaz hornituriko iturriak ura aurrezteko eta efizientzia energetiko handiko etxetresna elektrikoak. Aurrezki hori zeure hipotekara ere eraman dezakezu; galdetu zure bankuan "hipoteka berdeari" buruz, eta jakin zer abantaila dituzun ingurumenarekin konprometitua den etxebizitza jasangarria erostean.



Ingurumen kontzientzia:

Eta, batez ere, geure etxebizitzetako serieko neurri eta hobekuntza horiek planeta zaintzen eta biztanle guztien bizi kalitatea hobetzen laguntzen digute. Gainera zure laguntzarekin Grupo Eibar-en planeta zaintzeko 2021ean zuhaitzak landatu eta parke eta jardinak egin ditugu. Horretaz gain denera 10.000 m2 ko espazio publikoak bideratu ditugu.



WWW.GRUPOEIBAR.COM

WWW.GRUPOEIBAR.COM

